

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN 2016 FUNDAZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2016

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den azaroaren 30ean Donostia/San Sebastián 2016 Fundazioaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldikoa.

2016ko urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du. Halaber, Txostenak ondorioztatu du Fundazioak 2016ko ekitaldian bere ekonomia-finantzazko jarduera arautzen duen legezko arautegia bete duela.